

GURASOEN BEGIRADA

Desegituratutako familietako
haurrek harmonia onean hazi
eta hezteko aukera dute Harrera
Familia Profesionaletan 20

OLENTZERO UROLA BAILARAN ZE HAR



BAI. NIRI ERE
ARROPAK
LEHORTZEA
TOKATZEN ZAIT.

300 €-KO EROSKETA EGINDA,
MILAR FORRU POLARRA OPARI



ELECTROLUX
EDH 97951
A KLASEA



LEHEN 999 €
ORAIN:
799 €

BOSCH
WTE 8631 PEE
B KLASEA



LEHEN 639 €
ORAIN:
499 €

FAGOR
1 SF-70 CB
B KLASEA



LEHEN 579 €
ORAIN:
449 €



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 123.a (2010eko abendua)
Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 / oalegria@uztarria.com
Bazkideztza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. G. Otamendi
Web orrialdea. www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2010EKO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

04



iritzia

Inkesta. Joango al zara elurretara eski denboraldian? **13**

mamia

Edurne salegi. Ama izatearen sentipenez solasean yoga irakaslearekin **04**
Klik! Mugaz-muga, Azpeitiko herriari itzulia **16**

Azpeitiko lurrinak. Kiratsaren iturriak, Lapatx eta Bastida Pentsuak enpresa **24**

jakiteko

Bestaldetik. Futbol-zelaitik kanpo, Xabier Azkargortarekin **34**
Xabier Arregi. Maisua, urdaiazpikoa mozten **37**



34




37

Ba aL dakizu abenduaren 28an sanagustin kulturgunean fangoria taldeak joko dueLa? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrian

943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.022 bazkide **gara** dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarriak liburuxka gehiago aterako ditu)

EDURNE SALEGI

‘Umetxo bat dugu gure bizitzan’ ikastaroko irakaslea

“Ama bakoitzak daukana da baliotsua”

Ama izatearen sentipenez solasean aritzeaz gain, prozesu horretan lagungarri izateko teknikak azaltzen ditu Edurne Salegik bere saioetan.  Ane Aranburu

Lanean gozatu egiten duten horietakoa da Edurne Salegi azpeitiarra. Yoga irakasten urte askoan ibilia da, eta badira bost urte haurdun dauden emakumeei Yoga klaseak ematen ari dela. Horrez gain, Azpeitiko Esnearen Ligako begiralea da eta duela bi urtetatik hona, ‘Umetxo bat dugu gure bizitzan’ ikastarorekin ari da buru-belarri, 0 eta urtebeteko haurra duten amei zuzenduta.

Eguno gizartearen beharren ondorioz sortutako ikastaroa al da zuk eskaintzen duzuna?

Elkartzeko beharra izan ohi da haurra izan berri duten amen behar nagusietako bat. Garai batean, elkartzeko behar hori beste

era batera asetzen zuten amek. Orduan, familiak handiagoak ziren, etxe batean jende gehiago bizi zen, lan asko etxe inguruan egiten zen eta etxeko ateak ere irekita izaten zituzten. Gaur egun, eman diren aldaketekin, bai haurdunek eta baita ume txikiak dituen amek ere, asko eskertzen duten gauza bat da, giro eder baten elkartzeko aukera hori. Izan ere, gure egoera antzerakoa bizitzen ari direnekin elkartzen gairenean badaude behar batzuk asetzen direnak. Hala nola, entzuna eta ulertua izatea, adibidez. Eta baita ere gustatzen zaigu elkarrekin une atsegin bat pasatzea. Aitek ere badute hori, eta behar dute beste aitekin konpartitzea bizitzen ari diren une hori.

|||DATUAK|||

|||**Jaio.** 1977/08/04. |||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Yoga irakaslea eta ‘Umetxo bat dugu gure bizitzan’ ikastaroko irakaslea.



Edurne Salegi

Zer lantzen duzue ikastarotan?

Amak elkartzen dira beraien umetxoekin eta hasieran jolas txikiak egin eta abestu egiten diegu; gero masaje bat ematen diegu haurrei eta ondoren, elkarriketa irekitzen da. Amatasunaren inguruko gai batzuk ateratzen ditut eurak elkarriketan hasteko, eta amak euren artean dinamika bat sortzen hasten dira. Beraiek dira protagonistak. Desberdintasunerako tokia izatea ere gustatzen zait niri, bakoitzak bere erara egiten duelako. Gure gizartea lehia bat bezala da; zein hobeto eta zein okerrago, ama ona, eta ama txarra... Ez, bakoitzak daukan hori da baliotsua. Eta ni hori transmititzen saiatzen naiz. Umea zain-



Seme-alabekin ikastaroan parte hartu duten amei masajeak nola eman erakusten ari da Edurne Salegi, Sindikatu Zaharrean. **|||Ainitze Agirrezabala**

zerakoan bakoitza nola sentitzen garen aztertzen dugu, eta guk emakume bezala zein behar ditugun. Gero, bakoitzak umea hazteko garaian egingo du egokiena iruditzen zaiona, ahal duena, eta ahalik eta ondoen gainera.

Jendartean eman diren aldaketak direla-eta, zein dira gaur egungo gurasoek dituzten zailtasunak?

Gaur egunean, amatasun baja bukatzen denean, emakume batzuk badute gogoia lanera bueltatzeko, airez aldatzeko, jendearekin egoteko etabar. Hortaz, era desberdinetara antolatzen dira familiak. Batzuk lan murrizketa eskatzen dute, eszedentzia eskatzen dutenak ere badaude, eta ohikoa da baita ere lanerako itzuleraren horretan pena sentipena edukitzea. Hasierako urteetan, umeak behar duena da atxikimendua duten pertsonen presentzia eta arreta. Hasierako aldi horretan beren umeen zaintzara denbora dedikatu nahi dutenek, Europako Iparraldeko herrialdeetan, adibidez, laguntza ekonomiko oso onak dituzte. Alemanian, esaterako, amatasun baja 20 hilabe-

tekoa da, Espainiar Estatuan 16 astetako. Horietatik 10 bikoteak hartu ditzake. Lanaren inguruan, sendi oso lanpetuak ikusten ditut inguruan. Familia oso lanpetuak, eta faltan botatzen dira erritmo lasaiagoan bizitzea, atsedeneak egotea, elkarrekin denbora pasatzea... Horiek dira, beharbada, gaur egungo gizartean faltan botatzen direnak.

Yogak zer eskaini diezaieke haurdun dauden emakumei? Zer lantzen duzue saioetan?

Arnasketak lantzen ditugu saioetan, baita gorputza lantzeko ariketak ere, erlaxazioa, umearekin konexioa, masajea... Eta baita erditzearen inguruko zenbait gogoea ere; erditzeko momentuan umeari jaiotzen laguntzeko zer egin dezakeen amak, erditzea zerk erraztu dezakeen, minak eramangarri egiteko zerk balio duen... Baina kontuan hartu behar da umea jaio eta ez dela hasten zerotik. Amaren barnean dagoenean ere, nahigabetu egiten da, beldurtu egiten da, entzun egiten du, jolasten jarduten dute, amaren ahotsa ezagutzen, komu-

nikatu nahian eskuekin eta hankekin... Jaio aurreko prozesuan ere garatzen ari da haurraren fisikoa ez ezik, parte emozionala eta mentalaren oinarri bat.

Azpeitiko Esnearen Ligako begiralea ere bazara. Zertan oinarritzen da elkarte horretatik egiten duzuen lana?

Esnearen Liga Ameriketako Estatu Batuetan sortu zen duela 50 urte baino gehiago. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta bere helburua da, bularra ematearekin interesatuta dauden pertsonen informazioa eta laguntza ematea. Helburu horri erantzun asmoz, Azpeitian hilean behin egiten ditugu bilerak Sindikatu Zaharrean eta gaian interesa duen edozeinek parte hartu dezake. Zientzialari askok eta askok diote amaren esneak dituen osagaiak ezin hobek direla umearentzako eta era berean, amaren osasunarentzako ere ona da bularra ematea, umetokiko edota bularretako minbizia prebenitzeko era bat baita. Baita ere, parte emozionalari lotuta, umea amari bost zentzumenekin dago lotuta bularra ematen ari den momentuan; bere

ama ari da dastatzen, usaintzen, ukitzen, bere arnasa eta bihotz taupadak entzuten. Umea lasai sentitzen den momentua da alderdi emozional horretatik. Guk laguntza eta informazioa eskaintzen diegu bularra ematearekin interesatuta edo zailtasunak dituzten amei.

Ama izandakoen adin-tartea lehen baino zaharragoa dela diote estatistikek. Joera hori antzeman al duzu zuk ikastaroetan?

30 urte ingurukoa da ikastarora etortzen diren amen adinaren batezbestekoa. Gutxi ikusten dira 27 urtetik beherakoak. Hainbat arrazoi tarteko, atzeratu egin da haurrak izateko adina. Ikasketak, adibidez, eragina dute; karrera bukatu arte itxoiaren baduzu umea izateko, bada bere urteak ematen ditu. Ziurtasuna ere behar izaten dugu eta gauzak lotuta izatea, etxebizitzaren kontua adibidez. Era batera edo bestera, ama batek egiten duen lana baloratu eta bere buruan konfiantza izaten badu, indar eta energia gehiago izango du denerako. Eta hori da gure saioetan lantzen duguna.✘

Hizkuntza zaharrek, berriak?

U

rteko azken hilabetera iritsi gara, gezurra baldin badirudi ere. Urte nahasia izan dugu aurtengoa, denen ahotan dabilen krisi ekonomikoa tarteko: lanik gabe gelditzen den jendea, hil bukaerara iristeko arazoak dituzten familiak, etabar.

Hala ere, ez da ekonomia krisian dagoen gauza bakarra, adituei kasu egiten badiegu behintzat. Hitzun gutxiko hizkuntzak ere krisian daudela dirudi. Hau da hau, esango du batek edo besteak, dena dago krisian ala? Ez dut nahi hemendik ikuspuntu negatiboa bidaltzea, baizik eta itxaropenezkoa. Beti izaten da aukera polita urte berria desioak egiteko eta aurtengoak ere ez du salbuespena izan behar.

Abenduak 3an, euskararen eguna ospatzen dugun honetan, gure hizkuntza zahar eta maiteari ere itxaropenezko mezua eman behar diogu. Nazio Batuen Erakundearen arabera, 2030. urterako munduko hizkuntzen erdia galtzeko arriskuan dago. Ez ote da euskara horietako bat izango? Espero dugu ezetz, noski, eta itxaropena mantentzeko gure hizkuntzak aurretik izandako erronka bati aipamena egingo diot.

Iada badira 40 urte gure hizkuntzak ahozko hizkuntza izatetik idatzizko hizkuntza izatera igarotzeko erronka gainditu zuela. Arantzazun bildu ziren Euskaltzaindiako kideak eta han, Aizkorriren magalean, gure hizkuntza idatziz nola erabili behar zen, arauak adostu zituzten. Hortik dator euskara batuaren jatorria. Batzuk behar bada ez zuten garai hartan beharrezkoa ikusiko hizkuntza idatzirako berrikizun horiek eman behar zirenik, baina ezin uka daiteke pauso hori eman ez bagenu ez litzatekeela posible izango euskal hezkuntzak, kulturak eta literaturak izan duen garapena ulertzea. Oraindik 70. hamarkadan ordungo Espainiako presidentek Adolfo Suarez-ek galdetzen zuen: "¿Para que sirve un idioma como el euskera si no se enseñar con ella física cuántica?" Horrelako aurreiritziak kon-



|||||||markel mendizabal|||

|||Interneten erabilgarria suertatu daiteken hizkuntza bihurtzea da gaur egungo erronka



Xanti.R

tutan izanda ezin uka dezakegu euskara unibertsitatera ere iritsi dela eta erronka oso nota onarekin gainditu duela.

Gaur egun zer erronka dauka? Idatzizko hizkuntza izatetik sare digitalean, Interneten, bereziki, erabilgarria suertatu daiteken hizkuntza bihurtzea. Hori da erronka. Baina ziur, aurrekoan bezela, oraingoan ere erronkari aurre egingo diola.

Osasun ona

Zorionez gure herrian oso osasun ona dauka gure hizkuntzak eta biztanleen %90ak baino gehiagok bere lehen hizkuntza bezala dute. EAEan ez bezala, gainera hizkuntza oso erabilia da, eta ez da ezagutza hutsean gelditzen.

Badakizue zentzu honetan zer egia handia den Artzek dioen esaera hori: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik". Oso egi handia da eta zorionez gure herrian betetzen da.

Ea urte berri honekin batera denok topa egiten dugun gure hizkuntza-ren etorkizunaren omenetan!*



ondo pasatu santo tomasak 2010

udazkeneko azoka berezia
baserriko produktuen erakusketa
eta salmenta



Atsedenenaren geltokitik

Ez dio denborarik eman poltsa astuna apalean jarri eta bere eserleku topatzeko. Azken begirada ez da filmetan bezalakoa izan, konturatu denerako martxan jarri da trena eta bere kamiseta gorriaren ertz bat ikustera besterik ez da heldu. Agurrik gabeko agurra izan da patuak bananduriko lagunena.

Agurrak era askotakoak izan baitaitezke. Gozoak, garratzak, amorruz beterikoak, prezazkoak, musikatuak, gero arterainokoak, definitiboak, eta ezinbestean behartuak, heriotzarenak. Niri iritsi zait herri aldizkarian lau urtez izan dudana txoko hau utzi eta agur esateko ordua. Atzean utziak oroitzeko ordua, orainaz ikastekoa, bihar esan nahiko nukenez hausnartzekoa eta, guztion hobe beharrez, beste norbaiti lekua uztekoa.

Leihotik begira

Denbora honetan nire iritziak, ametsak, ilusioak eta etsipenak azaltzeko tokia izan dut eta jakin badakit zorteduna naizela horregatik, pribilegiatua, hobe esanda, 'primeran' leiho ondoko eserlekua tokatu zaidalako. Eta leiho ertz honetatik, oro har, mezu baikorrak igortzen saiatu naiz, herri, mundu eta gizarte hobeago bat eraikitzeko nire hondar aletxoak jartzen, irakurleari eguna alaitzen batzuetan eta, adierazteko tokirik izan ez arren, iritziak dituztenei ahotsa ematen besteetan; egunerokotasunaren magia islatzen eta egunerokotasun horrek begien parean jarri dizkidan injustiziak salatzen saiatu naiz, haize ufadak sortzen, olatuak baretzen eta bihotzak goxatzen. Eta pozik esan dezaket nire saiakerek eman dutela fruitua, hainbat lagunek, hileru, hala onartu didalako.

Atzean utziak oroitzean orri hauetan gelditu diren maitasun istorioak eta aireportueta-koak ikusten ditut, hemen gelditzen dira Luaren jaiotza eta Mikelen heriotza, baita Arantzazuko familia ere. Hemen gelditzen dira isiltasunari, askatasunari, bakardadeari eta la-



||||||| **olatz prat** |||||

||| **Eta pozik esan dezaket nire saiakerek eman dutela fruitua, hainbat lagunek, hileru, hala onartu didalako**

gunarteari, naturari, poesiari, negar eta algarrei eta beste mila konturi jarriak.

Baina, orain, tren honetatik jaitsi beharra sentitzen dut. Bidaia aurrera doan heinean, sentimendu berriak adierazteko betiko hitzak berrantolatzeko beharra, ikusten ditudan, gertatzen zaizkidan eta egiten ditudan gauzak ulertzeko.

Bidaiariok, trenak jarrai dezala gu gabe, berehala beste norbait eseriko da gure eserlekuan. Momentuz hemen, geltoki zaharkitu honetan geldituko gara nire kamiseta gorria eta ni. Paretak zein kolorez jantzi nahi ditugun erabakitzen, hurrengo bidaia nora egin nahi dugun pentsatzen, jendearen presak, aspermenak, ilusioak, ongietorriak eta agurrak ikusten, ikasten. Maletan beharrezko gauzak utzi eta jada balio ez dutenak ateratzen.

Trenko leihotik agur keinuka ikusten ditut zapiak. Bidaia honetan izan ditudan 'aholkulariak' dira eta bi hilez behin esango nienaren zain ilusioz egon diren horiek. Guztiei nire eskerrik beroenak. Eta badakizue, gaizki esanak ahaztu eta ondo esanak, balioz gero behintzat, zuen bidaiaren maletan sartu. Agur hau gero arte bat da. ✨





ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

abenduaren 23an itxiera



brillantedun
bitxietan



gainontzekoetan

Urre zaharrarekin ordaintzeko aukera
Eros ezazu opari zoragarria prezio onenean!

Loiolabide, 17 · 20730 Azpeitia · Tel. 943 81 10 02

|||ZER DIO?|||

Geure lurretan ere ezin agindu

Lerro hauen bidez pasaden urriaren bukaeran Loiola auzoan, Xistiaga inguruan daukagun Goiko Baso Txikia deitzen den lur zati pribatua gertatutakoa adierazi nahi dizuet.

Lur zati pribatua beste partikular batzuk geure lurretara sartu eta legez kontrako obra bat egin hasi ziren. Obra 3 metroko zabalera duen pasabidea egitea zen. Langileen esanetan garbiketa lanetan zebiltzan. Makina obra egiteko lekura eramateko gure lurretan sartu ziren eta pinuak eta zuhaitzak moztu eta hantxe botata utzi zituzten. Langile haiek ez zeukaten ez lur jabearen ez udal txearren baimenik, ezta obra lizentziarik ere.

Gauzak nola zeuden ikusita, Udaltzaingora deitu genuen, kontuan esku hartu zezaten. Lur pribatuak direla eta ez zutela zer ikusirik erantzun ziguten.



Hiru egun alde batera eta bestera ibili ondoren, errurik gabegure lan orduak eta osasuna galduz eta galera ekonomikoak sortuz, obra gelditzea lortu genuen.



Makinarekin sartu eta 3 metro zabalera egin aurreko eta ondorengo argazkiak dira.

Hori horrala izanik, nire galderak hauek dira: Egin digutena legezkoa al da? Geure lur pribatuetan ez al dugu geuk agintzen? Udaletxeak obra lizentziak ematen baditu, zergatik ez du gelditu hiru egun baino lehenago lizentzi gabeko obra hau, nahiz eta lur pribatua izan? Hirugarren mailako biztanleak al gara? Eskubideak eta betebeharrak ez al dira dezentzako berdinak? Zergatik ez al ditugu denok berdin ordaintzen? Zer iritzi duzue argazki horien obra egin aurretik eta ondorengo inguruan? Obra ala garbiketa lanak dira?*

|||arantxa soraluze|||

(Loiolako auzotar bat)

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Gabon usaina erakusleihoetan. Euskaraz, noski!

Errege ondorenean hasten dira ofizialki beherapenak; baina, herriko hainbat dendetan Gabonetako beherapenekin hasi dira. Euskaraz, noski! [Uztarrria](#)

**BEHERA.** Euskarak ez al ditu ba, lan kontuak ulertzen?

Krisi garaian lana eskainiz jendeak argi posteetan, paretetan edo bebarruan jartzen dituen iragarki mordoak ikus daiteke. Denak, ordea, gaztelania hutsean. [Uztarrria*](#)



Mikel Aiestaran.

ESANA DAGO

“Agentzien lana baino gehiago, herritarren eta lekuko kazetarien usaina batzea gustatzen zait”

MIKEL AIESTARAN
freelance kazetaria

“Hemen I+G (ikerketa gehi garapena) asko esaten da, baina gutxi egiten da”

KIZKITZA
GURRUTXAGA
Fisikan doktorea

“Ederra da, izugarrizko emozioa sentitzen da zeure usoak etxera bueltan direla ikustean”

JUSTO ISART
kolonbofiloa, usozalea



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Esan eta izan, anaia antonimoak



|||||||txetxu urbieta||||

Haragia ahula omen. Baita buru barruan, tarteka bakarrik, lana egiten duten garun apurrak ere. Polita da, pentsatzen dudana bezala bizi eta bizi naizen bezala pentsatzen dudala esatea, baina esatetik egitera, ia beti, oso bide malkar eta luzea egoten da.

Heria dotore-dotore argizatzearekin batera nire garunak iluntzen hasten dira. Gauza bat pentsatu eta kontrakoa egin. Era batekoa naizela uste eta beste era batera agertu. Kontsumismoaren zurrumbiloan murgildu eta urak noraezean daraman adartxoaren tanke-

ran jokatu. Kontraesanez beteriko korapiloa. Eta korapiloa askatzea lan korapilatsuegia. Alperrentzat lan gehitxo.

Barruko aberastasuna landu eta inguruko-ei balio horiek irakasteko asmoa, ia beti, asmo hutsean gelditzen da. Elkartasuna, urkoa, familia, solidaritatea eta tankerako hitzak lotsarazten ditugunaren ustea. Hitzok dotore asko ahoz-ahoz bai, baina dena airean desegin, egin ezer gutxi.

Kanpoko aberastasuna, hauts izan eta hauts izango garen arren, hori bai landu. Barrukoaz aritu eta kanpoko itxura zaindu. Ez

gaitzezela inor baino gutxiago izan eta gutaz esaten dutena ona izan dadila.

Hamar-hamabost eguneko gaitza da. Gure akats eta kontraesanen zauria osatzeko mikromina beharrik ez. Bestaldera begiratu eta denborak egin beza lana. Dena pasatzen da.

Santu izateko inolako asmorik ez dudanez (altarean kieto, tentemuxu, denen aurrean egon behar hori gogorra izango da) kontraesan eta akatsez josita bizi behar. Gurutzean josi zutena orain zeruan errege eta gu infernurako bidean. Hori izango da gure Benidorm.*

|||IKUSTEKO!|||||||



▲AHAL BALITZ KOTXEAREKIN SUKALDERAINO.

Garate Anaia auzoan etxe batzuek lurretik metro batera dute balkoia, eta, batzuetan, auto batzuk horien azpian egoten dira aparkatuta, muturra balkoi azpian aurrera sartuta. Goiko argazkian ikusi daitekeen bezala, etxera sost! sartu behar dutela ematen du. 📍 Ainitze Agirrezabala*

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Memoriaren eguna

BIKTIMAK. Biktimak gogoratzea bakebide izan behar luke, eta ez gizartea gehiago zatitzeko. Batzuk bakarrik gogoratzen ditugu, besteak zokoratuz. Gazteizko parlamentuan lege hori onartu dutenek, oso zerbitzu kaxkarra egin diote herriari. Horrela, hain beharrezkoa dugun benetako bakeari ez zaizkio atek irekitzen. Hemen bestea zokoratzea eta zapaltzea da nagusi, zoritxarrez.



|||||donato unanue|||



Esperientzia eskola

IKASTEN. Bati baino gehiagori entzun diot esaten: 'Edade horretan zertara joaten dituk ikastera?' Erantzuna garbia da: ikasteko beharra sentitu dutelako. Eta, zer axola zaio edadetua izan ala ez izan? Hori da bizitzari aurrera begiratzea. Hori da burua eta bihotza gazte izatea.



Umeen banda

MUSIKA. Azpeitian bizi ez garenontzat, nahiz eta bertara noizean behin bueltatxo bat egin, gure herria asko aldatzen ari dela gauza nabarmena da. Txikiak ginela nork pentsatuko zuen musika eskola eta haurren banda izango genituenik. Txikitan, Parrokian, Don Julianen ba-

besean ikasi genuen solfeoa eta baita tiple talde zoragarri bat ere osatu. Eta hain zuzen, nik gaur egun, hutsune horixe nabaritzen dut Azpeitian, alegia, ume talde gutxi ikusten ditudala kantatzen. Gure haurrak tresnak jotzen iaioagoak direla kantatzen baino. Zergatik ote?*

INKESTA

Joango al zara elurrefara eskidenboraldian?

 Ainitze Agirrezabala

ENERITZ LARRAÑAGA

12 urte



"Eskiatzera joateko ez dugu ohiturarik.

Datorren urtean eskolatik Cancanchura joango gara eta badut eskiatzen probatzeko gogo. Billeteak eta polboroi kaxak saldu beharko ditugu, bidaia ordaintzeko dirua lortzeko".

OIHANE AIZPURUA

12 urte



"Familiarekin askotan joan naiz Candanchura, Villanuevan etxea

baitugu. Eskia egin izan dut beti. Aurten gutxiago joango naiz, eskola kirola dela eta saskibaloiko partidak ditut eta".

PATXI URANGA

38 urte



"Behin joan naiz lagunekin, Astunera. Snowa egin nuen eta

disfrutatu nuen, baina baita sufritu ere, eroriz ikasten da eta. Eskiatzera joateko kontuak ez nau sekula tira izan".

JOSU MANTEROLA

35 urte



"Urtean pare bat aldiz, behintzat, joaten naiz Luz Ardidenara. Ask

disfrutatzen dut. Mobil home horietako batean egiten dugu lo. Behin Baqueiran ukalondoa min hartu nuen".*


Egin dezagun urratsa

Abokatua gose greban da, atxilotu zutenetik isolamenduan izan baitute. Orain urtebete presoen eskubideak defendatzen zebilenak, ezin bere lana burutu. Bera da orain preso, norbere eskubideak defendatzen, eguneko konpainia bakar kartzeleroak dituela. Gaurko janari uko egin dio, atzo bezala, eta zihurrenik, bihar ere berdin egingen du.

Beste preso bati lehioko argi izpi apurrek zelda argitu diote, beste behin. Beteak ditu legeak ezarri zion zigorra, baina espetxeko ateak ez zaizkio irekitzen, Justiziak ez baititu bere legeak ere betetzen.

Gazte bat ez da etxean izango gabon hauetan. Polizia bere bila joan zen orain aste batzuk. Ez zuten aurkitu, baina etxean ohe huts bat dago orduz geroztik. Gazte mugimendua piztea delitua omen, terrorismoa, beren hitzetan. Nor dabil, ordea, gazte-riarengan beldurra zabadu nahian?

Beste gazte bat, bitartean, goizean goiz esnatu da. Autoan sartu eta ordu luzeetako bidaia abiatuko




Yuri Agirre

du, 40 minutu labor iraungo dituen bisita burutzeko. Memoria duenetik, ez du gabon gaueko afarian osaba ondoan izan. 20 urte preso egon ondoren, mendeku politikak beste hamar urtez luzatu baitio barrote arteko kondena osabari.

Ehundaka testigantza, hamaika istorio eta mila samin. Telebistak erakusten ez duen errealtate gordina da errepresaliatuena.

Guztiek ere, ordea, irri bat izango dute oraindik ezpainetan. Herriko plazak jendez beteko dira, beste behin, presoekiko elkartasunez. Klasekideek egunkarian ipini dioten argazkiak bihotza ponpatuko dio gazte iheslariari eta ezezagun baten gutunak bakarrik ez dagoela gogorarazi baraualdian denari.

Ea ikusten ditugun, laster batean, preso eta iheslarien irriak gure herriko kaleetan. Eta ikus dezagun, egunkari guztien lehen orrian, Bilboko kaleak txiki ikusten diren argazkia urtarillaren 9an. Gure esku dago. Egin dezagun urratsa.*

galdetzen hasita, zenbat kilo txorizo jango dira santo Tomas egunean, abenduaren 21ean?  Uztarrria

Eliza ikusgarria

Aurreko batean, Parrokia inguruko lagun batek esan zidan, Interneten sartu eta Soreasu klikatuz gero, Parrokiari buruzko aipamen bat agertzen zela.

Esandakoari kasu egin eta, 2008. urtean idatzitako artikulua aurkitu nuen. Gaztelera idatzitakoa da, eta honoko hau dio, gutxi gora behera:

"Iaz, familiako ibilaldi batzuk egin genituen. Horietako batetan, Azpeitira iritsi ginen, Trenaren Museoa (oso egokia neska-mutikoentzat), eta Loiolako Santutegia ezagutzeko asmoz.

Han ginela aprobetxatuz, herrian barrena ibili ginen. Alderdi zaharrea, bapatean, harrigarria gertatu zitzaigun eliza bat ikusi genuen. Ez da ezagunegia. Izan ere, Loiolako Santutegi ederrak, herrian dauden monumentu eta eraikuntzak gogoan ez hartzera bultzatzen zaitzake.

Arrazoi horregatik, eliza eder hura aurkitzerik, ez genuen ez, inolaz ere espero. Santutegiarekin konparatuz gero, parekoa da.



Kepa Susperregi

Alderdi zaharrea dago, eta eraikuntza aipagarriak ditu gertu: Antxieta etxea. Atariko portikoa ikusgarria du, eta ondo zainduta dago. Ertaroan eraikitzen hasitakoa izanik ere, estilo ezberdinez osaturik agertzen zaigu. Artearen historia ezagutuz gero, eliza ikusiz, antzemango ditugu.

Inguratu ginenean, eliza erakutsi zigun emakume batekin egin genuen topo. Mesede galanta egin zigun.

Ikustaldi interesgarria izan zen guretzat. Azpeitian aurki ditzakegun gauzen osagarri".

Parrokiari buruzko aipamen hau eginez bukatzen dut, duela 10 urte inguru, gonbidapena jaso ondoren hasi nuen ibilaldia. Ez dakit egin zitzaidan gonbidapenari zuzen erantzun diodan beti, baina tira.

Bide honetan lagun izan ditut aholkuren bat eskaini didaten lagunak, bai eta artikulua egokitzen lagundu izan didaten aldizkariaren ordezkariak ere. Guztiei, eskerrak, eta nahi duzuen arte.*

Epeak

Kuriosoa da. Hilero-hilero zer idatzi asmatu ezinda bezala aritu naiz. Zeri buruz erabaki, errematea pentsatu eta tonua hausnartu. Eta guztia erabakitakoan, idazten hasi. Askotan, azken orduan, hausnarrerako gehiago astirik ez zegoelako, derrigorrean zerbait ipini behar. Orain, gehiago idatzi behar ez dudanean, gai asko ukitu gabe utzi dudala sentitzen dut. Oraindik asko daukadala esateko, gehiago daukadala esateko orain arte esan dudana baino.

Epeak, baina, agortu egiten dira. Gauzak ezin dira etengabe luzatu. Eta nahiko iritzi eman dudalakoan nago. Hiru urte gehiegi direla eta iritzi berriak komenigarriak direla esanda adierazi nuen nire epea agortuta zegoela. Kontuak atera eta, hiru ez, lau dira

eman ditudan urteak. Berrogeita lau artikulu. Nahikoa delakoan nago.

Hobeak, okerragoak eta txarrak izango ziren. Batzuen gustukoak, besteen disgustoak, eta, espero, horietan gutxi haserretutakoak. Askotan jaso ditut zorionak idatzi dudana gatik. Gutxitan kontrako iritzirik, irakurleen ustea alderantzizkoa izango den arren. Eragina izateko idazten dut. Ondo dagoena goratzeko gutxitan, gutxiegitan akaso, eta gaizki dagoena aldatzen joateko gehienetan. Mundua aldatu behar dela sinesten dudalako. Azpeitian aldatzeko asko dagoelako. Tentazioa ere hortxe zen idazteko orduan. Honen edo haren izena aipatzeara ikusten diozun jokatibideagatik. Baina batzutan horrek pertsonaletik gehiago dauka iritzitik baino. Eta ho-

rrelako tentazioak baztertu egin behar dira, askotan zaila egiten den arren, zinez.

Beti ez nuen asmatuko, baina iritzia garbi eman dudalakoan nago. Ez naiz ezkutuan ibili, batzutan gehiago esateko gogoz gelditu banaiz ere. Objektiboa izaten saiatu naiz. Neutrala sekula ez. Ez baitira berdinak. Nik dakidala ez dut gezurrik esan. Eta haserretu denik baldin bada, ez da behintzat gezurra esan dudalako. Agian bai iritziak min egin duelako. Aldaketak mingarriak izaten baitira.

Baina aldaketa eskatzen ari denak ere aldatu beharra du, eta horretarako epeak ipini. Kostatu egiten da, baina nik aldatzen jarraitu nahi dut. Ingurua. Mundua. Norberarengandik hasita. Orain beste era batera. Txoko honetako nire epea amaitu da. Ondo izan.✳



|||||||joxin iturriotz||||

|||ZER DIO?|||||||

Txitximore absurdoa??

Txitximoreren inguruan azaroko Uztarría aldizkarian Ihintza Agirretxek 'Maitasuna eta esklabutza' titularrarekin argitaratu zuen iritzi artikulan adierazitako esaldi batzuei erantzunez:

Emakume bat bere bikoteak erail duenean edo jipoitua izan denean, modu batera edo bestera jendarte guztiak ikusten du emakumeon kontrako eraso bat gertatu dela. Ez da berdina gertatzen, emakumeok egunero jasaten ditugun milaka eraso ezberdinekin ordea, nik behintzat ezin dut bat egin, "ondo dakit noiz naizen erasotua" esaldiarekin, nire uste apalean, orokorrean behintzat, zail egiten zaizkigu askotan ikustea, identifikatzea eta modu pertsonaletik haratagoko erasotzat kokatzea. Sistema patriarkalaren eginkizuna da hori, berdintasunean bizi garela sinestartaraztea denoi eta horretarako ongi baino hobekiago neurtuta

ditu pauso guztiak, sistema patriarkala ez da tontoa, horretarako sortua da.

Feminismotik, ordea, eraso guzti horiek identifikatzeaz gain, emakumeok gure artean bildu, hausnartu eta erantzuteak duen

|||Autodefentsa feministaz sistema patriarkalari pitzadurak egin nahi dizkiogu

|||Ni Txitximorerekin nago, herriko hainbat emakume aktibatzekeo tresna izan da

garrantziaz sinesten dugu, auto-defentsa feministaz sistema patriarkalari pitzadurak egin nahi dizkiogu. Ez baikaude instituzioek noiz babestuko gaituzten zain eta "eraso txikiaren aurrean ere babesten nauen gizartea" emakumeok guk geuk kontzientziaztatik lortuko dugula sinesten dugulako, modu polita eta ezberdina irudituz gaituzten Txitximore bezalako pertsonaia bat sortzearena.

Super heroiak ahalmen berezia du sistema patriarkalak jarritako erasoak identifikatzeko, eta betaurreko moreak jaztera animatzen gaitu, izan ere, betaurreko hauekin, bizi edo ikuspegi morea, feminista, ikusten dugu, horrela erasoak identifikatu ahal ditzazkegu, ondorioz erreakzionatu eta erantzuteko, beste modu bateko harremanak eraikitzen.

Ezarri zaigun sistema bera bezala, ni ere ez naiz tontoa, badakit Txitximorek ez digula bizitza kon-

ponduko, ez da asmoa ere, soilik modu dibertigarri batean gure ideiak eta asmoak azaleratzea eta kontzientziaztio lana egitea da. Ni Txitximorerekin nago, niretzako ez da "super heroi absurdoa", niretzako herriko hainbat emakume aktibatzekeo tresna izan da eta da oraindik eta aldi berean eraiki nahi ditugun harreman berrien alde urrats bat emateko tresna.


Aurrerantzean ere modu batera edo bestera horrelako ekimenak egin beharrean aurkituko gara, mugimendu feministak kaletan egindako kontzientziaztio lanei esker lortu dugulako instituzioetan edota beste hainbat esparrutan hainbat proiektu martxan jartzea.

Beraz, sistema patriarkala bera absurdo bilakatu arte lanean jarraituko dugu.✳

|||||||Haizea Eiguren||||
(Azpeitiko Bilgune Feministako kidea)

▼ LOIOLA, LAINOPEAN.

Ateri, baina lainope esnatu zen eguna azaroaren 6an, Mugaz Muga Azpeitiko herriari itzulia emateko lehen etapan. Sei-zazpi orduko ibilbidea zuten aurretik. Berrogeita hamar lagunetik gorako taldea, adin guztietako jendeak hartu zuen parte. Goizeko 08:00etan plazatik atera eta Loiolatik barrena, Berrosuetatik, Txalintxora igo ziren. Gero, Munohaunditik gora, Mendizabal eta Igatera.



Azpeitiari itzulia

Azpeitiaren mugak ezagutzeko lau irteera antolatu ditu Lagun Onak M. B.-ak, Udalarekin elkarlanean, 700. urteurrenaren baitan. 📌 A. Agirrezabala 📍 Lagun Onak M. B.



► IZAZPI (973M).

Samiño tontorretik Pagotxetara jaitsi eta bidean aldapa gogorrek igotzen sufritu ondoren, eguneko tontor nagusira igo zen taldea: Iazpira (973 m). Han goian ere mugarriak zeuden, Goierri eta Azpeitia bereiziz. Eguneko argazkia tontorrean atera, modakutxoa egin eta behera, etxerako buelta.



▲ ATASAREA, MENDIKO ATAKA.

Bidean lokatza ugari, Samiño gainera igotzeko malda gogorrek igo eta larre zabalak igaro zituzten. Ailegatzen aurrenak zirenek taldeari itxaron zioten, denak Samiño gainean elkartu arte. Argazkian, baserritarrek lurra bereizteko jarritako hesia pasatu ahal izateko jendea atasaretik pasatzen.





▲ MENDIAREN AHOAN BARRENA.

Herriko mugak igarotzeko hirugarrengo txango honetan, Ibarbia auzotik Lasaora arteko ibilbidea egin zuten.

► EGUNEKO ARGAZKIA EIZMENDIN.

Matxinbentako Igartzola baserriaren ondotik pasatu eta Ibai-Eder urtegian aurrera Nuarbera jaitsi ziren. Handik, Beizamarako errepidea gurutzatu eta Zabalegi baserrira. Eguneko aldapa bakarrak hor igo behar izan zituzten. Gurdibidean aurrera, Mendibil baserritik igaro eta Eizmendi auzora igo ziren. Han argazkia atera eta beherantza: Miranda baserritik Altzartera; handik Urrakiko errepidea gurutzatu eta Artxiolara doan bidea jarraituz, Ibarbia auzora jaitsi ziren.



▲ MATXINBENTATIK

Martin Alegriak txistu hotsekin 6 etapa egiteko plazan elkartu zire eta Matxinbentara. Egin beharre, Errezilgo Ibarbia auzora, lau-bost



▲ PAISAIA IKUSGARRIA.

Eguraldi paregabea, ederra, garbia egin zuen bigarren etapan. Beraz, bazterrak eta inguruak ikusteko ezin hobeto.





ERREZILERA.

ngletorria eman zien bigarren
n 60 lagun ingururi. Autobusa hartu
ko ibilbidea: Matxinbentatik
ordu. Argazkian, Matxinbenta.



▲ SAÑOIA TONTORREAN.

Eguraldi hotzak eta euriak beldurtuta edo, aurreko bi etapetan baino jende gutxiagok hartu zuen parte –41 lagunek– hirugarren go honetan. Ibilbidean, altuera irabazi ahala euria elur bihurtuz joan zen. Sañoia tontorrean atera zuten eguneko argazkia, taldean.



▼ ETXERAKO BUELTA, TRENEAN.

Mendizale denak helmugara, Lasaora, ailegatzean, etxerako bidea Urolako trenean egin zuten. Mugaz-muga, Azpeitiko herriari itzulia emateko laugarren eta azken ibilaldia falta zuten egiteko aldizkaria inprentan sartu zenean: abenduaren 4an, Lasaotik Azpeitirako zatia.

Familiaren babesaren eta harmonia

Erantzun berezia behar duten nerabeak goxotasunean hazi eta hezteko asmoz, Harrera Familia Profesionalen ekimena abian da duela hiru urtetik. 📝👁️ Ainitze Agirrezabala

Lau begi begira edukitzeak sendatzen du umea. Jakitea bizitza honetan norbaitentzat garrantzitsua zarela, eta begirada horiek zuretzat direla. Pertsona baten behar nagusia da ama baten eta aita baten begiak ikustea. Eta, jakitea mina badut pertsona harengana joan behar dudala. Bizitzan erreferentzia seguru bat edukitzea, lotura hori. Egunerokoan, ordea, etxeko gauza txikiak inoiz ez dituzte eduki. Ez dute inoiz begirada bat eduki, eta hori beraientzat kristorena da. Harrera-pisu batean ez dira ezer, bat gehiago dira". Harrera profesionalaren bidez etxean hartutako nerabeez Amagoia Aizpuru (Urrestilla, 1980) esandako hitzak dira.

Arazoi eta egoera desberdinak medio, familia askok euren seme-alabak adopzioan eman edota harrera etxeetan utzi behar izan dituzte. Errealitate latz horiei aurre egin, eta gizarteko behar horiei erantzuteko asmoz, badira hogeitau urte familia biologikoetatik urrundutako adingabeak famili giroan eta harmonia onean hazi eta hezteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak borondatezko familien harrera programa martxan jarri zuela.

Harrera profesionalenok hamar pertsona daude Gipuzkoan; eta, hamazortzi adingabe dituzte hartuta

Alabaina, borondatezko harrera familiek adingabe guztien beharrei erantzunik ematen ez ziela ikusita, beste ekimen bat jarri zuen abian Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2007an: Harrera Familia Profesionalena.

Euren familietatik urrundutako bi adingaberen harrerako ama profesionala da Amagoia Aizpuru. "Normalean ez dira haur txikiak izaten; familia boluntarioetara errazago iristen baitira hiru urtekoak, hamahiru urtekoak baino. Behar eta ezaugarri bereziak izaten di-

tuzte, jarrera arazoak... eta, borondatezko harrera familietara bideratuak izateko zailtasunak. Beti harrera pisuetan geratzen ziren. Ume horiek familia bat edukitzeko aukera izan zezaten jarri zen martxan, hain zuzen, ekimena. Kontuan izan, historia oso luzea dutela atzetik, motxila handi bat bizkarrean dutela datoz. Familia boluntarioei ezin zaie ezaugarri horietako neraberik eman, horregatik behar da jende profesionala, horiekin lana egiteko".

Harrera familia profesionalak, harrerara bideratutako adingabeek eta horien familia biologikoek osatutako zirkulua du lanbide Maider Astigarragak (Azpeitia, 1975). Programaren kudeaketaren ardura duen ARCE-UNSAC enpresako begiralea da. "Ume baikoitza foru agindu batekin dator, eta agindu horretan zehazten da familia biologikoarekin bisitak nola izango diren, zenbat ordutakoak, non izango diren, deiak... Bisitak gainbegiratuak diren edo ez ere zehazten da, eta gainbegiratuak diren kasuetan, harrera familia profesionalari umea hartu, eta bisitan egoten naiz familiarekin eta umearekin. Bisitak ondo doazela ikuskatzeaz arduratzen naiz, eta bisi-

ta bukatutakoan umea harrera familia profesionalarengana eramaten dut bueltan”.

Aizpururen esanetan, familiari umea berreskuratu ahal izateko baldintza batzuk jartzen zaizkio: “Gehienetan, terapia batean parte hartu behar izaten du familiak, eta bi urteko epea du estrukturatzeko. Bestalde, sei hilabetero, begiralea, psikologoa edo terapeuta eta harrera familia profesionala elkartzen gara txostena egiteko. Egituratzeko horretan, familia biologikoa egiten ari den lana, eta harrerara bideratutako umearekin dituen bisitak baloratzen dira, eta egokia den kasuetan, bisita egunak zabalitzen dira, esaterako”.

Aizpuruk kontatu duenez, bi eratako harrekarak egiten dituzte: “urgentziazkoak eta iraunkorrak. Nik, esaterako, urgentzian bi jaioberri eduki ditut etxean. Babesik gabe daudelako gurasoei kendu, edo umea erditu eta adopzioan eman nahi dutenen kasuan, haurra adopzioan jasoko duen familia nor izango den erabaki artean, urgentziazko familiak hartzen du. Jaioberri bat hiru egunekin hartu nuen ospitaletik, eta bi hilabetez nirekin izan nuen. Lanbide honen ezaugarri txarrenetakoa da emozio asko bizitzen dituzula. Oso garbi eduki behar duzu ume hori zurekin dagoela, baina bere familiara bueltatzeko helburuarekin. Distantzia hori markatzen jakin behar duzu. Gertatzen dena da, hori teorian oso polita dela, baina ez da horren erraza. Eguneko 24 orduak berekin zaude eta zeure familiaren parte izatera iristen da. Ez duzu pentsatzen zurea ez denik”.

30 nerabe familiaren zain

Arazorik edo zailtasunik handiena, harrera familia profesionala izateko bete beharreko baldintzetan dagoela dio Aizpuruk: “Baldintzetako bat prestakuntza egokia izatea da, esparru horretako diplomatura edo lizentziatura bat izatea. Ez du balio fisikan lizentziaduna izateak. Bi adingabe hartzeko prest egotea, eta etxean horiek jasotzeko espazioa izatea. Horiez gain, elkarrizketa pertsonal bat ere egiten da, egunen batean haurraren gaindik urruntzeak hartzaileari nola eragingo dion eta emozionalki distantzia hori markatzeko gai zaren ikusteko. Bikotea duzun kasuan, haren onspena izatea oso garrantzitsua da. Nik horretan kristoren babesa dut”.

Astigarraren esanetan, “momentu honetan, harrera profesionalean diharduten hamar pertsona daude Gipuzkoan, eta guztira, hamazortzi adingabe dituzte hartuta. Behar bereziak dituzten beste 30 nerabe daude, ordea, harrera profesionalaren bidez,



Amagoia Aizpuru eta Maider Astigarraga, elkarrizketaren ondoren kafe bana hartzen.

familia egituratu batek noiz jasoko zain”. Astigarragak kontatu duenez, hiru hartzaileekin abiatu zuten programa, baina denborarekin geroz eta jende gehiago animatzen da: “Denetik etorriten zaigu, baina hartzaile izateko bete beharreko baldintzak zorrotzak dira. Uztaillean eta abuztuan 70 pertsona baino gehiago interesatu ziren, baina horietatik zazpi bakarrik egin dute aurrera”.

“Esperientzia zoragarria”

Harrerako familia profesional bezala adingabe bat etxean hartu asmoz informatzera joan zen Astigarraga; baina, bi adingabe hartzeko prest zegoen galdetu ziotenean, atzera egin zuen. “Gaur egun, berriz, errazago animatuko nintzateke bi nerabe etxean hartzera”.

Aizpuruk, berriz, bikotekidearekin batera aspalditik buruan zebilkien asmoa duela hiru urte bete zuen. Ordura arteko bikote bizimodu bost urteko mutikoa sartu zen: “Hasieran, oso gogorra izan zen; zuzenean familiatik

atera zuten eta, dolu handia pasatu behar izan zuten. Umea negar batean ikusteak pena ematen zidan; negarrez hasteko nire gizona bakarrik falta zen. Gero, egokitzean gauza asko lortzen dira eta, lehen urtebetean aurrerapen handia egin zuen. Familia biologikorekin bisitak eta oso normalizatuak ditu eta, orain, guk ere badugu komunikazioa haiekin. Azkenean, umearentzat onena da ikustea bi familiak ez garela arerioak”. Joan den irailan, 12 urteko neskatua hartu zuen eta, “harekin bizitzen ari naizena ere oso esperientzia polita” izaten ari dela kontatu du.

Etorkizunera begira, mutil koskorrek, esaterako, “galdera eta beldur asko” dituela dio Aizpuruk: “Bera gustura dago bi familiak edukita, eta nik ematen diodan mezua da, hara joaten bada hemen atea beti izango dituela irekita, nahi duenean etortzeko; eta, hemen badago, berriz, nahi duen guztietan eramango dugula hara. Orduan, ez du ezer galtzen, ez gara hiltze... hemen gaude”.

Bihotzeko familia

Familia biologikoak hezi eta hazi ezin, eta Azpeitiko familia batek jaso zuen Jokin Iriondo, orain 20 urte. Normaltasun eta naturaltasun osoz hitz egin du bere iraganaz, orainaz eta etorkizunaz.

Gurasoek semearen kargu ezin zutela egin eta, Azpeitiko berrondatezko harrera familia batek jaso zuen etxean Jokin Iriondo, duela 20 urte. "Izatez Aizarnazabalgoa naiz, baina gure etxeko giroa eta egoera zailak ziren, nonbait, eta seme-alabok ez geunden behar bezala zainduta". Txiki-txikitatik normaltasun eta naturaltasun osoz hitz egiten du bere bizipenez eta esperientziaz Jokin Iriondok.

Egoera haren aurrean, Zestoa-ko gizarte laguntzaileak eta Diputazioak esku hartu zuten kontuan, seme-alabetan txikiena –Jokin, bi urte zituen; beste senideak koskortuak ziren–, jasoko zuen familia bat bilatu asmoz. "Nire oraingo familiak eta biologikoak harremana bazuten aurretik, eta, hala, Diputaziotik hartuko ninduten galdetu zien. Aita-amak, ordea, baserrian bizi ziren eta lan asko zutela eta, orduan, behintzat, ezin izan ninduten jaso".

Patuak, ordea, idatzita zuen mutilaren etorkizuna: "Nonbait, beste inor bilatu ez eta urtebetera, berriro joan zitzaizkien hartuko ninduten galdezka. Ordurako Aizarnazabalgo baserritik kalera, Azpeitira, bizitzera jaitiak ziren, eta, beno, haienean kuxara bat beti sobratzen zela esan omen zuen gure amak eta hala hartu ninduten. Sansebastianetan edo jaso ninduten, eta martxoan hiru urte bete nituen".

Maitasun hitzak

Esker oneko hitzak besterik ez zaizkio ateratzen Jokin Iriondori, umea zela jaso zuen familiaz galdetuta. "Nire familia hau da; han daukat bestea, baina... Odolekoak haiek dira, baina bihotzekoak haiek. Aldearekin, gainera. Oso ona tokatu zait familia osoa. Sekulako suertea eduki dut. Niretzako haiek dira nire aita eta ama, eta ni semea beraiantzako. Bi arreba ere badituzte eta zoragarri moldatzen naiz biekin. Ikaragarri

maite dituzte. Nigatik egin dutena asko eskertzen diet".

Berak gogoan ez baditu ere, Azpeitira etorri zeneko lehen egunak ez zirela batera samurrak izan kontatzen du: "Golpera familia batetik atera eta bestera eraman ninduten eta hasieran gaizki pasatu nuen, harik eta familia berria ezagutu, asentatu eta konfiantza hartu nuen arte. Gaizki etorriko nintzen, nonbait. Hiru egunean edo ia lorik ez nuen egin, eta gurasoekin kalera atera, Xoxoteko Saninazioren argia ikusi eta negar batean bueltan etxera nola joaten ginen ere kontatzen didate. Bizitako guztia eta gero, banituen nonbait hor, barruan, beldurrrak edo traumak".

Umetan etxetik irten nahiz ez, eta gaztetan etxera erretiratu ezin. Horrela adierazi du: "Hamalau urterekin eta, egundoko bolada txarra, garai zaila, izan nuen. Gaztea zara eta ezerk ez dizu inporta. Etxean haserretu eta esan ere bai 'zu ez zara nire ama'. Dena

horrelako erregaluak. Orain, ordea, goata artean zaintzen dituzte ama, aita eta bi arreba ere bai. Nire familiak asko egin du nigatik".

Kontziente izan ez arren, jaiotzetik bizitakoak barnean zizelkatzeten edo kalkatzeten dira, eta mila galderei erantzuna eman eta barruko korapiloak askatu asmoz, iraganean bizitakoak ezagutzeko jakin-min handia izan du: "Sorgin eta psikologoengana askotan joan izan naiz, baina inork ez dit arrasto garbirik atera".

Etxea bezalakorik ez

la bizitza osoa Azpeitian badarama ere, ama biologikoarekin mantentzen du harremana: "Igeldon bizi da eta tarteka joaten naiz bistan. Odoleko bi arreba eta anaia bat ere badituzte, eta arrebetako batekin tratu estua dut".

Hemezortzi urte konpliztean, harrera familiak seme edo alabarenganako tutoretza galtzen du. "Adinez nagusi egin nintzenean, Diputaziora joan nintzen eta han nire modukoentzako dauden etxe horietako batera bizitzera joateko aukera eskaini zidaten. Sartu zaitez ba, han! Ez, ez... ni nagoen lekuan, hemen aita eta amarekin, ederki nago. Neuk nahi dudan artean edo, 'beno, aldegin ezak hemendik', amak esan artean, etxean segituko dut."*

ORDULARI

Jose de Artebe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Eniparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artebe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Esku-hartze psikosoziala

Arazoak dituzten edo desegituratuta dauden familiei etxeko giroa hobetzen eta egunerokoan organizatzen laguntzeko zerbitzua eskaintzen du, besteak beste, Azpeitiko Udalak.

Etxean harmonia gozorik ez, egunerokoan organizazio kaskarra, seme-alaben jarreraren mugarik ez... Arazoak dituzten edo desegituratuta dauden familiei lagundu asmoz, eskuhartze psikosozialerako zerbitzua eskaintzen du Udalak. Ainhoa Etura da ekimenaren arduraduna, familiako bi hezitzaile ere badaude, eta baita etxez-etxeko laguntzaileak ere.

Programan parte hartzeko, nahitaez, familian 18 urtetik beherako batek behar du egon. Une honetan 50 familiarekin dihardute lanean. Parte hartzen duten familien profilararen inguruko datuak dira ondorengoak: familien %27a atzeritarrak dira; %40a guraso bananduak eta, beste horrenbeste nerabeak. Eta, %18 gurasoetako batek gaixotasun mentala dutenen kopurua.

Lanketa hiru arlotan

Eturak adierazi duenez, programa honek haur eta gazteen lau arlotan eragiten du: pertsonalean,

familian, gizarte arloan eta eskolatan. "Horretarako, hiru lan-ildo landuko dira. Arlo pedagogikoan haur, gazte eta familiaren formazioa bultzatzen da. Arlo terapeutikoak gatazka egoerak sortzen dituzten alderdi pertsonaletan eta harremanetan eragiten du. Familia arloan, berriz, familiari orientazioa, babesa, eta aholkularitza eskainiko zaizkio, familiakideen garapen normalizatua lortzeko".

Ikastola detektatutako onak

Familia batean arazoak daudela ikusten aurrenak, askotan, ikastetxeak dira: "Ikastetxe bat baino gehiagotatik esan izan digute badaudela laguntza jaso beharko luketenak. Nolanahi ere, herriko hainbat ikastetxetan kasuak egon arren, ez dituzte bideratzen". Era berean, familiei esku-hartze psikosozialean parte hartzeko aholkatu arren, horretara "inoiz ez dira behartzen", dio. "Onena da gurasoak beraiek jabetzea etxeko giroan eta antolakuntzan aldake-

ta behar dutela, eta beraien kabuz etortzea.

Eturaren esanetan, "familietan esku-hartzen hastean, aurreneko hilabetean familiako egoera behatu eta balorazio bat egiten dugu. Hori dena oso kontuz egin beharrekoa da, familiaren aldetik atxikimendua izateko".

Behin balorazioa eginda, "helburu batzuk finkatzen dira eta esku hartzea nola burutu erabaki. Epe batzuk ere jartzen dira kasua baloratzeko". Eturak dioenez, "batzuetan, etxean, familiaren funtzionamenduan eta heziketan, egin behar da lana; aldiz, arazoa —droga-kontsumoa, eskola-porrota, gurasoak banantzea, bullying-a...— familiako pertsona batek badu, hori esparru indibidualizatuan, tratatzen da".

Eskumenik ez

Herri mailan, "arazo guztietara heldu eta konpontzea exigitzen" zaiela dio. "Eta, hori ezinezkoa da. Etorri izan zaigu pertsona bat

esanaz bizilagunaren etxean arazoak dituztela; kasua aztertzea beti joaten gara, baina, anonimotasun horretatik ezin izaten dugu beti esku-hartzea egin. Gure arloan oso kontuz jokatu behar dugu. Ardura handiko lana da eta, bestela, gure kontra datoz".

Organizazio falta

Familiako arazoak asko izan daitezke, baina orohar "organizazio falta" da muina: "etxe batzutan, igoal, goizeko martxak huts egiten du. Ikastetxetik esaten digute umeak eskolara berandu doazela, goseak edo lokartu egiten direla; edo, afaltzeko garaia heldu eta fundamenturik ez eta zorroko patatak dituzte afaltzeko". Familiak zenbait ohitura hartzen hasteko sartzen dira etxean. Ordutegiak lantzen ditugu, zer erosketa egiten duten, otorduak egiten diren, higiena... "Hasieran, beraietzako kontrol bat bezala izan gaitzeko, baina konfiantzako figura bihurtu behar dugu".

Bestalde, seme-alaben heziketan "araurik ez egoteak", ume eta nerabeen jarreraren "mugarik ez edukitzea" dakar. "Hori asko errepikatzen da. Ekonomikoki eta sozialki estrukturatutako familietan ere arau faltak sumatzen ditugu. Izan ere, ni ez banaiz antolatzen goizean umeak jaiki eta eskolara ordurako eramateko, ez naiz gai izango arauk jartzeko ere. Edo, eskola porrotetatik arazoak dituen haurra ekartzen digute eta, aztertzen hastean konturatzen gara familia horretan ez dagoela araurik eta mugarik, eta arazoa ez dela umearena bakarrik".

Urte asko daramatzate programarekin eta emaitzak hor daude. "Familia batzuk oso ondo integratuta daude eta, beste batzuk bere garaian esku-hartze psikosozialean parte-hartu ez zutelako, orain bigarren belaunaldiarekin ari gara lanean. Tratatu ezean, ondorengoan errepikatu egiten da kasua. Programa hasi eta laga, hasi eta laga... dabilzan familien kasuak ditugu".*



Ainhoa Etura, Esku-hartze psikosozialaren programako arduraduna.

Azpeitiko lurrinak

Mota guztietako usainak arnasten dira herrian. Uda partean dira nabarmenenak, baina, neguan ere ez da horiek usaintzeko aukerarik falta izaten. 📌 Xabier Otamendi

U

rrakitik behera, Lapatx txen gainean dagoen bihurtune inguruan antzematen hasten dira Azpeitian hainbeste nabaritzen diren usainen nahasketak. Eguraldiak asko baldintzatzen du usainaren nondik norakoa, batez ere haizearen norabideak. Zabortegiaren auzoan bizi direnek erabat jasan behar izaten dute hark isurtzen duen kiratsa. Urte osoan zehar izan ohi da, baina bertako batek dioenez, "udan izaten da txarrena". Ez dela denbora guztian egoten usain txar hori diote: "boladaka etortzen da, kanpora irten eta izugarritzko usaina egoten da askotan". Negu aldean, dirudienek, pentsu usainik ez dela gehiegi antzematen esaten dute, baina "gutxiago bada ere" zabortegikoa antzematen da. Oraindik ere ez dago talderik edo ezer sortuta auzoan, baina gaiaren inguruan batzuk hitz egiteko asmotan dira, jakinarazi dutenez.

Usainaren iturri nabarmenetako bat Lapatx zabortegia da. 1988an zabaldu zen zabortegi hori, eta 2009 bukaerarako itxita behar zuten arren, Gipuzkoako Diputazioak 2012ra arte irekita mantentzeko baimena eman zuen. Egunean 300 tona zabor sartzen dira Azpeitian, 180 bertako mankomunitatekoak, eta beste 120 Donostialdetik etortzen dira. San Markosko zabortegia itxi zutenean, hango mankomunitateko zaborrak Beasaingo, Zarauzko eta Azpeitiko zabortegira ekartzen hasi ziren. Konposta egiteko planta ere ber-



Lapatx zabortegian zaborra estaltzeko makinak lanean. ||| Gaizka Otamendi

tan jarri zen eta bai inguruko bizilagunek, eta baita Izaskun Zeziaga Udaleko Ingurugiro Saileko arduradunak dioen bezala, bi usain irteten dira Lapatxetik: zabortegiarena eta konpost plantarena.

Usain ezberdinak kontrolatzerakoan, "dagoen arazorik handiena, legedirik ez izatea da. Legerik ez badago, ezin dugu gauza handirik egin", dio Izaskun Zeziagak. Gaia oso gutxi landutakoa da, orain apur bat aztertzen dela dio, baina ez dagoela ezer idatzita. "Europa mailan ez dago ia ezer. Duela urte batzuk Katalunian hasi ziren zirriborro bat idazten, baina azkenean, ezerezean geratu zen. Holandan badago zerbait, baina gutxi. Eusko jaurlaritzak ere ez du zirriborrorik".

Osasunerako "ez dira kaltegarriak", baina "kontzentrazio txiki-txiki bat nahikoa da usain oso desatsegina sortzeko", dio ingurugiro arduradunak. Gai oso konplexua da, izan ere, gutxi aztertu denez, teknikoki usainak ezabatzeko modu batzuk badauden arren, oso urriak dira, eta garestiak gainera. Zeziagak adierazi duenez, "kontaminazio atmosferiko-



Pinosos Bastida enpresako tximinia kea dariola, Urraki aldetik ateratako argazkian. ||G.O.

ari aurre egiteko badaude teknika eta erraminta nahiko eraginkorrak, baina, urte asko dira gai hori lantzen hasi zirela, usainaren gaiarekin gertatu ez den bezala".

"Inbertsio handia"

Jaxinto Zulaika, Pienso Bastidako Zuzendari Teknikoaren esanetan, "merkatuko teknologia onenak" dituzte enpresak sortutako kiratsak ezabatzeko. "Sortzen den usainaren %86a kentzea lortzen dugu". Orduan, diotenez, "zati txiki bat bakarrik" isurtzen dute, "guztia kentzerik ez" daukatelako. "Asko arduratzen" direla kiratsez aipatzen du: "izan ere, hainbesteko inbertsioa egin izan ez bagenu, usaina are okerragoa izango litzateke".

Arazo hori konpontzen saiatzen diren enpresa ezberdinak daude, eta horietako batek, tximinia luze bat jarri beharko luketela esan zien Pienso Bastidakoei, baina legediak ez du hainbestekoa jartzen uzten. Bestalde, honela dio Zuzendari Teknikoak: "Usaina %100ean kentzeko, Camp Nouren neurri bikoitzeko filtroa jarri beharko genuela esan ziguten, eta guk ez daukagu hainbeste toki. Merkatuko punta puntako teknologia daukagu arazo horri aurre egiteko, diru asko inbertitu dugu horretan".

Zulaikak ere legediaren falta gogorarazten du, izan ere, ez dagoela usainak neurtzeko sistemarik dio. "Guk usaina neurtzeko sistema subjektibo batzuk baditugu, kontzentradore batzuk, baina legez inork ezin digu ezer esan, ez dagoelako neurtzerik". Zarata neurtzeko, adibidez, badago sistema objektiboa, beraz, legedia jartzea posible da, baina usainarekin, oraingoz behintzat ez da horrelakorik gertatzen.✳



||| DATUAK |||||

300 tona zabor. Sartzen dira egunean Azpeitian: 180 bertako mankomunitatekoak, eta 120 Donostialdetik etortzen dira.

2012 ra arte irekita. Gipuzkoako Diputazioak irekita mantentzeko baimena eman zuen; izatez, 2009 bukaerarako itxita behar zuen.

|||"Osasunerako ez dira kaltegarriak; kontzentrazio txiki bat, ordea, nahikoa da usain desatsegina sortzeko"

|||"Arazorik handiena, legedirik ez izatea da. Legerik ezezan, ezin dugu gauza handirik egin"

IZASKUN ZEZIAGA

Udaleko Ingurugiro Saileko arduraduna

|||"Merkatuko teknologia onenak ditugu sortutako kiratsa ezabatzeko. Usainaren %86a kentzea lortzen dugu"

|||"Usaina %100ean kentzeko Camp Nouren neurri bikoitzeko filtroa jarri beharko genuke"

JAXINTO ZULAIKA

Pienso Bastidako zuzendaria



IREKIERA ABENDUAK 17, OSTIRALA
20:00etik 22:00etara

Damaso Azkue plaza 7 · 943080524 · nknmoda@gmail.com

|||ZER DIO?|||

Alde Zaharra taupadarik gabe

Bertan Merkatarik elkarreko alde zaharreko merkatarik Luis Gurrutxagaren iritziaz erantzunez jakinarazi nahi dugu bere iritzia errespetatzen dugula, eta polita izango litzatekeela, baina errealitatea tamalez ez dela horrela.

Normalean herriko Alde Zaharra herriko bihotza izaten da eta gure herrian alderantziz gertatzen da.

Luis Gurrutxagaren esanetan plaza kotxe zaleentzako itxiz gero oinezkoak erakartzea lortuko litzateke, baina gaur egun gure herrian alderantziz gertatzen dela ondo dakigu merkatarik. Guretzat, Alde Zaharreko kaleak itxi zirenetik gune hau hilda dago. Eta herriko plaza autoentzako itxen

badigute, gure negozioen amaiera izango da.

Orain dela urte batzuk udala eta merkatarik Alde Zaharreko kaleak itxi eta oinezkoentzat jaritzeko aldekoak ginen, baina denborak erakutsi digu harturiko erabakia ez zela egokia izan.

Gure borroka momentu honetan Alde Zaharra berpiztea da, gure negozioak aurrera egin de-

|||Herriko plaza autoentzako itxen badigute, gure negozioen amaiera izango da

zaten. Udalarekin eztabaidan ari gara Alde Zaharrari bizia nola eman erabakitzeko. Guk ezinbestekoa ikusten dugu Alde Zaharrak bizia eduki dezan kaleak goiz eta arratsalde denend ordutegietan irekita egotea.

Nahiz eta udal agintariak gure iritzia aintzakotzat ez hartu.

Momentu honetan Azpeitiar guztiok eta merkatarik krisia

|||Alde Zaharrak bizia eduki dezan kaleak denend ordutegietan irekita egotea ezinbestekoa da

dela eta garai gogorak ari gara bizitzen. Oztopo hauekin (arratsalde kaleak ixtea, plaza autoentzako ixtea...) herritarrek atzera errazago egiten dute Alde Zaharrera hurbiltzerako orduan. Ondorioz, Alde Zaharreko merkatarik krisialdi hau are eta gogorragoa ari zaigu egiten.

Ondorioz, alde zaharreko merkatarik egiten dugun hausnarke-ta hau da: Zer nahiago duzue, taupadarik gabeko Alde Zaharra (taberna, denda etabar gabe) edo taupada biziak dituen Alde Zaharra?*

|||**Beatriz Oiarzabal,**
Josu Rezabal,
Arantxa Olaberria|||
(Bertan Merkatarik Elkarte-kideak)

||||| haritz etxeberria 'ministro' |||||



||||| josu oiartzabal 'xenpelar' |||||

Sareari lotuta

Ministro. Hi Xenpelar, nik bidaltzen dizkiaten email-ak zergatik ez dituk inoiz erantzuten?

Xenpelar. Komeni zaizkidanak erantzuten dizkiat, baina hireak irakurri gabe ere baze-kiat "marroi"-ren bat izango direla.

Ministro. Joño! Espabilatua irten duk, ondo zagok jakitea hurrengorako.

Xenpelar. Ulertu ezak, denok ez gaituk ordenagailura entxufatuta bizi. Gainera, astean hiru aldiz egoten ez gaituk ba, eta ni eskola zaharrekoa nauk, gauzak aurpegira.

Ministro. Behin Ingeles ilustre batek esan zian, 'pentsatzen dut, beraz, banaiz'.

Xenpelar. Hasi haiz berriz listo irteeretan.

Ministro. Lasai, horrekin esan nahi nian, gaur egun, ez dela horrela; baizik, 'googlen agertzen naiz, beraz, banaiz'.

Xenpelar. Mundua nola joango duk ba ondo, jendea hor zebilek sarera bere argazki eta bideoak igotzen, beren buruari frogatzeko existitzen direla.

Erniarraitz ere sarean

Ministro. Ba, orduan, Erniarraitzek luzerako existentzia badik; azken aldian badiagu eta gure blogean gauzak jarri beharra.

Xenpelar. Egia duk, Interneten ez bagaude jende askorengana ez ginatékela helduko.

Ministro. Eskerrak Ander bezalako zibernautak zauzkaagun; guregatik izango bauan, zuri-zuri jarraituko zian.

Xenpelar. Bai, lan handia egiten ari duk komunikazio taldea; eskertu beharrean gaituk.

Ministro. Baina, batek ez dik bestea kentzen, jendeak argazki kamerekin momentu guztiak gorde beharrak sutan jartzen naik.

Xenpelar. Arrazoi duk, ueña gorde behar

||||| **XENPELAR.** "Ikusten nagok bertso saioen aurretik pizza jaten hasiko garela"

||||| **MINISTRO.** "Bai, eta bertso eskolan *play station*-etik kantatzen"

horretan, azkenean ueña ez ditek gozaten.

Ministro. Txarrena duk, hemen eta Bilbon berdina gertatzen dela. Alegia, "xiudadanoak" bihurtzen ari garela.

Xenpelar. Globalizazioaren ondorioak dituk, eta oraindik ikusten nagok bertso saioen aurretik *pizza* jaten hasiko garela.


Ministro. Bai, eta bertso eskolan *play station*-etik kantatzen.

Xenpelar. Teknologia berriek erraztasun handiak zekartzatek, baina gutxitan erabiltzen dizkiagu egoki.

Ministro. Orduan badakik, hasi e-mail-ak erantzuten, eta orain *uztarria.com* irakurtzen ari bada norbait, irakurtzean, itzali ordenagailua eta segi mendira eguraldi ona zioK/h eta.✘



Herriko plaza izan asmotan

Sanagustin kulturguneak hilaren 11n irekiko ditu ateak. "Herri erdian dagoelako, espazioz handia delako eta ekipamendu tekniko oso onak dituelako, garrantzitsua izango da oso".  Ainitze Agirrezabala

Sanagustin kulturgunea estreinatzeak kontuak luze jo badute ere, 'herriko plaza' izango denak hilaren 11n irekiko ditu ateak. "Kultur Mahaia eta Udalak elkarlanean jardun dute Sanagustin irekitzeko, eta emaitzak lortu dira", adierazi dute Kultur Mahaioek.

Azpeitiko kultur talde denek -25ek-, lau udal taldek, Udaleko Kultura teknikariak, norbanako batzuek eta teknikariak osatzen dute Kultur Mahaia. Modu eraginkorren 2008tik ari da martxan, eta sorreratik Talde Eragilearen funtsezko eta lehentasun osoko proiektua Sanagustin kulturgunea izan da.

San Agustin eliza kultur erabilerarako egokitzeak Espainiako Gobernuak 1,9 milioi euro bideratu ditu. Sinadura baten faltan

DATUAK

Zer. Sanagustinen irekiera.
Eguna. Abenduak 11.
Ordua. 19:00. **Tokia.** Sanagustin kulturgunea.
Antolatzailea. Kultur Mahaia eta Udala.

INAUGURAZIO EKITALDIA

19:00. Ateak irekiko dira.
19:30. Hortzaka antzerki taldearen sketcha.
19:35. Itsasi taldearen agurra.
19:45. Herriko kultur taldeen argazkiekin osatutako bideoa.
19:50. Antzerki sketcha.
19:55. Musika eskolako, trikitilarien, txistularien eta Julian Barrenetxea Abesbatzaren saioa.

irekiera asko atzeratu bada ere, azkenean kontua desblokeatzea lortu da.

Kultur Mahaikoen esanetan, "Sanagustin irekitzea garrantzitsua da oso kultur espresio txikientzat, herri erdian dagoelako, espazioz handia delako eta ikusentzunezko aretoaren ekipamendu teknikoa oso ona duelako".*

20:10. Sanagustineko martxo bukaera arteko programazioaren aurkezpena.
20:20. Zubi Zarreko musika taldeen emanaldia.
20:30. Kultur Mahaiko kideen eta Udalekoen adierazpenak.
20:35. Erriarraitz Bertsozale Elkarteko bertsolariak saioa eskainiko dute.*

BESTERIK

1 Saharari elkartasuna

Marokoko gobernuak Mendebaldeko Saharan burutako basakeria salatu eta elkartasuna adierazteko, besteak beste mus txapelketa, hitzaldia, erakusketa eta janari bilketa izango dira.

Eguna. Abenduak 10 eta 13tik 18ra. **Antolatzailea.** Azpeitiko Khamar Sahararen Aldeko Elkartea.

2 Bazkideen urteroko batzarra

Uztarrria Komunikazio Taldeko zuzendaritzak 2009ko batzarretik hona egindakoa azalduko die bazkideei. 2010eko ekintzen balantzea egingo da eta datorren urtera begira dituen asmoak azalduko ditu.


Eguna. Abenduak 18 (larunbata). **Ordua.** 12:00
Tokia. Baigera I-eko aretoa.
Antolatzailea. Uztarrria komunikazio Taldea.

3 Gabonetako jolas parkea

Haurrentzako jolasak eta puzgarriak egongo dira eta sarrerak bi euro balio ditu.

Eguna. Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra. **Ordua.** 16:00etatik 20:00etara.
Tokia. Izarraitz pilotalekua.
Antolatzailea. Azpeitiko Udala.*

Uztarriaren azaroko zenbakian, 'Azpeitiari itzulua, mugarik-muga' ekitaldia Lagun Onak M.B.-k antolatu duela ipintzea ahaztu zitzaigun



Sanagustin kulturgunean ekipamendu teknikoa jartzeko lanak egiten.  Kepa Urbieta



euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Mailing-ak, perching-ak, parabrising-ak...
- Iragarkiak

HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

	Jazarpen	Onena	Gaude	Bizkarez, garestia	Lanzko
	*	Eraz haser- ratzen da	Zelatan dabilena	Bediako	
	Zuberoako euskalkia				
	Senton, agure				
Ezkutatua	Poltsi- kodun				
Denbora luzera	Laborarien lanabesa				
				Joan den urtean	
				Urtu aditza- ren izena	
Zehatza					Kontso- nantea
Harritu					Usaimena
			Bizkaieraz, larrua		
			Behialako alternatiba		
Iruzur					Estrontzioa
Afrikako estatua					Ez eme
				Eduki	
				Kontso- nantea	Potasioa
Nor deklinabide kasuan		Eskariak			

* Azpeitiko etxea

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietan ageri diren 8 kirolen izenak.



D	O	L	R	Z	E	S	N	L	I	T	A
E	H	U	X	T	A	X	U	O	U	T	G
M	I	E	Z	L	K	I	A	R	N	E	A
A	L	Z	O	I	L	O	R	E	S	X	I
B	N	I	A	D	E	Z	B	P	A	Z	S
E	O	S	L	G	K	N	E	O	L	R	O
L	E	I	L	R	I	O	S	I	A	G	L
A	L	X	I	X	B	R	D	A	E	X	E
N	O	G	T	A	U	I	R	T	O	I	L
L	S	A	S	P	L	I	L	E	N	T	A
O	M	X	E	S	A	E	H	D	X	I	M
M	I	E	R	I	K	L	I	N	O	I	R
I	N	A	R	A	O	A	S	A	L	O	K
Z	A	G	U	R	S	O	S	L	I	E	L

SOLUZIOAK


HITZ GEZIDUNAK

A	K	V	A	R	E	A	K	S	E	●	K	V	●
●	N	A	Z	I	●	A	D	A	N	V	A	R	U
S	R	●	T	R	A	K	A	N	K	A	T	●	●
A	U	R	A	R	A	N	●	T	U	R	T	Z	U
T	●	A	U	T	E	R	K	O	N	K	O	●	●
Z	A	I	●	A	R	O	R	A	Z	L	U	Z	●
N	U	D	A	L	E	K	E	S	A	●	K	●	●
A	R	E	R	E	B	Z	●	●	●	●	●	●	●
L	A	B	A	Z	S	O	Z	B	A	S	O	Z	B
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

HIZKI ZOPA

U	I	J	T	X	A	I	P	A	H	D	A		
B	A	B	I	O	K	E	R	I	O	T	R		
U	H	O	L	I	B	A	T	O	L	I	B		
A	T	M	I	T	R	O	P	E	Z	●	●		
N	O	I	X	A	T	S	U	A	T	X	E	R	N
K	I	X	I	D	A	X	I	K	●	●	●	●	
A	L	E	N	S	U	A	I	D	O	A	●	●	
B	I	S	O	E	M	Z	A	G	U	E	M	B	
I	O	N	I	P	A	J	A	R	T	I	●	●	
L	S	I	J	N	G	Z	R	I	O	L	S	●	●
A	E	A	T	E	K	I	R	E	G	I	E	●	●
U	X	T	U	R	T	P	U	X	N	D	P	●	●
I	D	O	J	O	R	E	P	O	K	I	E	●	●
H	E	R	I	M	U	D	I	B	A	T	L	●	●

ZEIN DA?



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Abenduak 20 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardoak ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



LEHENENGO SOLAIRUKO LORAK SOBERAN DAUDE



IRABAZLEA



Arantxa Galarraga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 122. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Arantxa Galarraga, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

gabonetako otarrak eta opariak egiten ditugu

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



Koipea

Askok pentsatzen dutenaren aurka, koipea ezinbestekoa da gure eguneroko elikaduran. Koi-perik gabe ezinezkoa litzateke bizitzea; adibidez, A, D, E eta K bitaminak bideratzen ditu eta hormonak sortzen ere parte hartzen du. Sarritan entzuten dugu kontsultan galdera hau: 'Nolatan diote orain medikuek lehen txarra zen arrain urdina –%5 baino koipe gehiago duelako– oso ona dela kolesterola u eta zainetako esklerosia sahiesteko?'

Ibiliaz ari gara bidea egiten... eta, unibertsitatean erakutsi ez zigutena orain ari gara ikasten ikastaroetan, kongresuetan eta ikerketa bidez, gizartearen alde zerbait onuragarria egiteko asmotan. Abereen koipea da gizakien osasunerako desegokiena eta landare koipeak, aldiz, osasun iturriak.

Koipe denek dute kaloria berdina jangarri den gramo bakoitzeko, bai oliba olioak, gantzak edo margarinak. Koipe gramo bakoitzak 9 kaloria ematen digu eta eguneroko dieta orekatuan 2.500 kaloria kontsumitzen dituen 70 kiloko pertsona batentzat, %35 koipea izan behar du. Ondoren, elikagaien 100 gramok duten koipearen zifra batzuk: intxaurrek %65, aguakateak %23, babarrunak, dilistak eta patatak %1, kremazko izozkiak %83, txokolateak %30, untxiak %10 eta arrautzak %12.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

MIKEL ARTEAGA sukaldeak muntatzen ditu



1. Modako kolorea?

Txuria.

2. Zer-nolako sua?

Indukziokoa: azkar berotu eta beroari eusten dio. Oso garbia da.

3. Sukaldean telebista, bai ala ez?

Ez. Solasaldia mozten du.

4. Nolako sukaldeak?

Modernoak. Errustikoak lan gehiago du garbi eusten.

5. Krisirik bai?

Bai. Aukeran, sukaldeak kapritxoak da.

6. Zenbatero aldatzen da sukaldeak?

Batezbeste, 20 urtera.

7. Anekdotarik?

Lanerako asmotan, etxe bateko atea ireki eta han ari ziren bi lagun larru bizian.

8. Bezeroak zer nahi erabakitzerakoan...

Batzuk ti-ta; beste batzuk desesperagarriak dira.*

Ainitze Agirrezabala

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larnaldiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

domusa

||| ELKARRIZKETA DIGITALA ||| Garmendia, Etxaniz eta Txibilter

“Irabazteko asmoa alde batera utzi eta ondo pasatuaz, ondo pasaraztea da gure helburua”

||| Hirukote honek osatzen duen taldeak aurten hartuko du parte aurrenekoz Bertso Parrandan.

Partehartze hau ez al da juerga botatzeko aitzakia?

Parranda egiteko aitzakia beharrik ez diagu. Gu lehengo bertso parranda berreskuratuzera goaz.

Askotatu al duzue?

Asteartero bertso eskolan juntatzen gaituk. Asteazkenean Etxaniz femitean jarduten duk, Txibilter astoarekin entrenatzen ari denean eta Haritz Xanjuandekin txikiteoan. Astebukaeran, berriz, neskekin hasi, aspertu eta gure artean bukatzen diagu.

Aurten sorpresa eman dezake taldea zarete.

Zer esperantza dituzue?

Kalimotxorekin ala zerbezarekin?

Gure maila emateko esperantza, ez gehiago, ez gutxiago. Taldean hiru mosketero gaude: ura edaten duena, zerbeza edaten



||| INKESTA |||

Soreasuko lurrazpiko parkinga erabiliko duzue?

Bai. %37,58.

Ez. %28,48.

Agian. %33,94.

||| Oraingo galdera. Nork ekartzen dizkizu Gabonetan opariak?

duena eta kalimotxo edaten duena.

Bertso parranda serioegia bihurtzen ari dela ez al zaituzte iruditzen? Irabaztera edo giroa jartzera zoazte?

Ambiente ederra jarriaz irabaztea onena! Baina, irabazteko asmoa alde batera utzi ta ondo pasatuaz, ondo pasaraztea dugu helburua.

Zein neurri edo ariketetan ikusten zarete ondoen?

Lehenengo agurrean, etxetik preparamatuta eramango dugu eta!

Lehengo eta oraingo zein bertsolari dituzue gogokoena?

Etxaniz: Joxe Agirre eta Zubeldia. Txibilter: Lazkao Txiki eta Arzallus. Garmendia: Txirrita eta Miren Amuriza.

Bertsotan hasita, geratu-ko zaituztenik ba al dago?

Aurrera pasatzen bagara, zapatu goizera arte segituko dugu. Pasatzen ez bagara jairarte!*

||| EFEMERIDEAK |||

1643

Parrokiako dorrerako

ordularia. Udalak Santiago Marikorta erlojulariarekin eskritura sinatzea erabaki zuen, ehun dukaten ordainetan.

1700

Urdaia erosi nahi zutenek zortzi eguneko epea zuten.

Librako erreal bat ordainduz. Epe hori amaitzean saltzaileak askatasuna izango zuen urdaia herriatik kanpo saltzeko.

1854

Inprimategia zabaltzeko baimena. Pablo Martinezek

Erdi kalean inprimategia irekitzeko oniritzia jaso zuen, gobernadorearen eskutik.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

KIRKOS SEXOLOGIA ZENTRUA

Bikote terapia sexuala · Gurasoentzako aholkularitza ·
Eiakulazio goiztiarra · Desio falta · Inpotentzia · Baginismoa

Eliz kale 13, tarteko solairua ezkerrean · ZUMARRAGA · 630 287 321

Sexologia: Edu Reguero · AEPS 421z

 **ostadar optika**
OPTIKARIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **lenteria mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar



Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com




1

1. Boliviako ume bati autografoa sinatzen.
2. Bolivian, hasieran, oso gaizki hartu zuten, heriotza mehatxua eta dena jaso zituen. Gero, Jainkotzat zuten. Argazkian, Boliviako presidente Evo Moralesi eskua ematen, Espainiako errege-etxean. **3.** Bartzelonan klinika pribatu bat ireki zuen sozio batzuekin. Argazkian, Maradona esfortzu-froga egiten.



2



3

Zelaitik kanpokoak

Azkargorta aitatu eta futbol kontuak datozkigu burura. Baina, berdegunetik haratago zer du kontatzeko? ✍️📧 Ainitze Agirrezabala

Ordubetz luzatu den so-lasaldian, pare bat-hiru kafe hartu ditu, eta al-dian-al-dian urez beteta duen basotik tragoska egiten. “Kafe asko hartzen dut. Egunean... ez dut kontaktzen, baina mordoska”. Kafeak lagun handia du zigarroa, baina erretzea utzi zuela kontatu du: “Entrenatzaile debutatu nuenean hasi nintzen, 1983an, eta hamahiru urtean geratu gabe erre nuen. Ducadosa. Egunean, igoal, hiru pakete. Lehen begiratuan, gizon serioaren planta badu ere, jardunean hasita mingainean erdoilik ez du Xabier Azkargortak (Azpeitia, 1953).

Hamar urte egiterako joan zen Jabierrea, Jesuitek in ikastera, eta, geroztik, bizitzan aurrera egiteko ez du begietan makarrik eduki: “Erdi kalean, Erremotanekoen goian bizi ziren Arruetarren etxean nengoela, Aita Zalduari entzun nion Jabierren pilotalekuak, futbol-zelaiak, igerilekuak... zeudela, eta aitarren tindategira joan orduko kolegio batean izena eman nuela esan nion. Disziplina gogorra genuen han, eguna ikasten eta futboleant pasatzen genuen. Ez zegoen besterik, baina esperientzia oso ona izan nuen, Jesuitek ikasten irakatsi zidaten eta harrezkero ez naiz geratu ikasten”.

Xabierren aitak, Patxi Azkargortak, pilotarako zuen adinako afiziorik ez zuen semeak ekarri. “Gure aitak suerte txarra eduki zuen, bi semeak futbolari atera ginelako. Orduan, ohiturak pixkat aldatu eta eduki zuen futbole-rako zaletasuna ere, baina hark betidanik pilota bizi izan du. Mutil koskorretan pilotan ibilitakoak gara, herri arteko txapelketan eta, tindategiaren aurrean Frontoi Txiki baiken nuen”.

Berezienak, Bolivia eta Japonia

Azkargorta Lagun Onaken izan zen entrenatzaile, gero Ondarroan ere bai, baina, harrezkero, beti Euskal Herritik kanpo egon da karguetan. “Egia esan niri futbolak dena eman dit. Futbolari esker ia mundu guztian entrenatu dut, bazter asko ezagutu eta lagun asko egin ditut eta horrek esperientzia eta aberastasuna eman dizkit”. Joandako lekuetan bertakoen bizimodua eta kultura barnetik ezagutzen “saiatu” izan da: “1992an, amari Boliviara nindoala esan nionean, barru-barrutik esan zidan: ‘zer zoaz misiolari?’”. Espiritu aldetik, gehien markatu nauen bidaia Boliviakoa izan da. Hara egindako bidaiak bizitzaren ikuspegia aldatu zidan. Bolivian askorentzat



Xabier Azkargorta Zarauzko Euomar kafetegian; han elkarrizketatu zuen Uztarriak entrenatzaile azpeitiarra.

MOTZEAN

OROITZAPEN BAT?

Aitona egin nintzenekoa, eta Boliviarekin munduko txapelketara sailkatzea.

ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Libururen bat eskuartean izateak. Ez dakit komunera libururik gabe joaten.

ETA, ZERK GARRAZTEN?

Egungo politikak asko gaixotzen nau.

AMETS BAT?

Euskal Herriko talderen bat profesional bezala entrenatzea. Arantza hori daukat.

ENTRENATZAILE EZ BAZINA?

Herriko medikua, Bereziartua bezala.

JATEKO BAT?

Marmitakoa eta legatz frijitua.

GALTZEKO TXOKO BAT?

Errioxan, Ezkarain, dugun etxea.

bitzea zer zaila den jabetu nintzen". Japoniak ere "asko ukitu" zuela adierazi du, baina "beste modu" batera: "Maiteminduta geratu nintzen zer errespetu eta edukazio duten eta, gizartearen egituratuta nola dagoen ikusita. Diru-zorroa galduz gero, bila joateko esanaz deitu eta osorik bueltatzen dizute...".

Beti txandala jantzita

Medikuntza ikasketak Bilbon hasi eta Bartzelonan bukatu zituen: "Zalantza izan nuen medikuntza edo fisika ikasi. Elektronika gustuko nuen oso. Gogoan dut Donostiako Electroson dendatik piezak erosi, telebista bat muntatu eta Bermeoko lehengusuei eman niela. Baina, gorputzak nola funtzionatzen zuen jakitea ere asko gustatzen zitzaidan. Hala, kirol medikuntzan espezializatu nintzen, gero entrenatzaile bezala aplikatzeko".

Ikasketekin nahikoa ez, eta Bilbon bizi zela inmobiliaria batean ere aritu zen pisuak saltzen. "Gauza asko egin beharrekoa naiz. Belauneko lesioa medio, futboleko jokatzeari utzi eta, medikuntzako langarren urtea bukatzean entrenatzaile ikasketak egin nituen. 1978ko promozioan Espainiako onena izan nintzen". Hala, soinetako irakasle izateko baimena zuen eta Loiolan, Izarraitz Kooperatzaile

tiban, aritu zen, 1978tik 1982ra. "Herri guztietan daude mingain luzeak eta kalean beti txandalarekin ibiltzen nintzelako fantasma xamarra nintzela zioten. Ikastolako gurasoekin bilera bat ere egin nuen, txandalarekin joaten ez zen umeak gimnasiarik ez zuela egingo esanaz. Protestatu egin zuten, gastu handia zela eta. Orduan hasi ginen soinetari balioa ematen. Nik lehen egunean esaten nien umei ez nuela inor suspenditzen. Batzuk, igoal, gizenak ziren, makalak, baina nik lortu nahi nuena zen mendira edo joaten zirenean jakitea zer ariketa egin behar zituzten luzaketak, abdominalak, lunbarrak egiteko, edo pultsua nola hartzen zen jakitea. Ez zen presaketak fisikoa; heziketa fisikoa, baizik".

Munduan batetik bestera ibili denetan, familia ez du beti bidelagun izan. Pertsona bakarrik egotera "ohitu" egiten dela dio. "Musika entzun, lan asko egin, irakurri... Geratu ere egin gabe leitzen dut, hileru bi-hiru liburu. Toti Martinez de Lezearen *La Universal*-ekin barre asko egin dut. Hamabostean behin, saiatzen naiz zinemara ere joaten". Azpeitian Zine Kluba sortu zenean lan taldean zen Azkargorta: "Urte askoan, ni nintzen moderatzailea zine forumetan. Garai artan, asko indartu genuen zine kluba. Haiek garaiak!". ✨

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (ABENDUA)

EGUNEZ

1-10-13-18-19-21-24-27-30	2-8-14-17-22-25-28	3-7-16-20-26	4-5-6-15-23-29	9-11-12-31
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 815974	943 811274	943 811949	943 080258	943 811350

GAUEZ

1-2-3-4-5-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26	6-9-28-29-31	7-8-27	10-30	11-12
Eizagirre (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811274	943 852989	943 850660	943 851235	943 851966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

--ren ??an izango dute hitzordua, ??tik ??ra, ambulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ PARKING 'BERRIA'.

Udaletik jakitera eman dutenez, "herrian autoak aparkatzeko dagoen premiaz jabetuta, eta Perretxikon haurrek ikasten ez dutenez, hango jolastokia autoak aparkatzeko erabiliko da".

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

XABIER ARREGI

urdaiazpikoa mozten aritzen da

“Ikusi behar den gauza da, hitzekin ezin da esplikatu”

Sevillako mutil baten ondoan ikasi zuen ofizioa; baina, urdaiazpikoa jateaz “aspertuta” dagoela dio. 📌 Ainitze Agirrezabala

Azpeitiar batek zer egiten du Donostian?

18 urterekin ilusioa eta abenturarako gogoaz ez nituen falta eta Donostiko taberna batean hasi nintzen lanean, 1983an. Gerora, Anoeta futbol-zelaiaren ondoko La venta del Curro tabernan hasi nintzen. Urdaiazpikoa mozten zekien Sevillako mutil batek han egiten zuen lana, baina berak jai egin ahal izateko beste norbaitek mozten ikasi behar zuela eta haren ondoan ikasi nuen. Urdaiazpikoa jateaz, ordea, aspertuta nago. Nahiago dut mortadela edo txorizo panplona jatea.

Zein da ondo mozteko sekretua?

Mimo handiz egitea eta materiala –generoa, aiztoak eta urdaiazpikoa lotzeko taula– ona edukitzea. Taula asko ibili ditut esku artean eta, orain dudana, nire ustez, dagoen onena da. Behin lotzen dudanean ezker-eskubi, gora-behera, jiro guztiak egiten ditu. Hiru aizto ibiltzen ditut eta bi, behintzat, oso onak ditut: bat japoniarra da, bestea alemana. Eta, esan dezaket nik mozten dudana urdaiazpikoa Espainia mailan iberikoetan dagoen onenetarikoa dela. Produktu garestia da.

Nongo urdaiazpikoa ibiltzen duzue?

Salamancako Guijuelo herrikoa, eta xelebrea da, baina Arroako Mardu familia arduratzen da horien salmentaz.

Jaterakoan hainbesteko aldea al du ondo moztutako urdaiazpikoak?

Erdipurdiko urdaiazpikoa ondo mozten duenak goratu egiten du; urdaiazpiko on bat gaizki mozten duenak aldrebestu.

Urdaiazpikoa ondo, nola mozten da?

Ikusi behar den gauza bat da, hitzekin ezin da esplikatu. Xerra oso meheak eta oso motzak moztu behar dira. Ahoan sartzeko tamainakoak. Lana txukun egiteko, hezurretik hezurrrera, ahal den leunena eraman behar da, dena oso fin geratzeko. Aiztoarekin moztutako urdaiazpikoak beste goxotasun bat du, makinan moztutakoarekin alderatuta. Goxotasuna makinan geratu beharrean, goxotasuna zeuk eramaten duzu. Urdaiazpiko horren balioa hor dago.

Non aritu zara urdaiazpikoa mozten?

Bodetan aperitibo bezala, azaroan Kursaa-len gastronomía ferian, Bilboko BECera ere joan izan naiz, Santanderrera, Iruñera...*



1. 3. Arregi urdaiazpikoa mozten. 2. Martxoan hiru urte beteko dira beste bi lagunekin batera El doble taberna –argazkian– hartu zuela.



Diote, Gasteizen...

N

ola diren kontuak gure herrian, Urolako hiriburuan, nik ez dakit. Hemen, Arabako ziutatean, ez da bromarik. PSOEren murrizketa sozialaren kontra irten omen dira Gasteizko udalaren langile asko eta asko eta direnak eta ez direnak kontatu dizkigute herritarroi...

Eta diote alkateak 50 milioi euro gastatu dituela auditorio delako batean, oraindik harri potor bakar bat ere ez dela jarri bertan, eta haren maketa akustikoak –maketak, besterik ez–, milioi euro balio duela. Eta udal langile askok eta askok, kontu kontari oso haserre ari diren horiek, alegia, diote auditorio delako horrek, oraindik ezer ere ez den horrek, 2009ko azarotik zuzendaria duela, eta zuzendari horrek hilean hamar mila euro kobratzen dituela. Harrapazan/k hori hankatik!

Eta diote, Gasteizko udalaren langile suharrek, 56.000 euro ere gastatu dituela hiriburuko alkate jaun txit diru gastatzaile gorenak Japoniara egina duen bidaian. Justifikatua ez dagoela nork esan? Auditorioak ikustera joan zen, askorik entenditzen ez duen arren. Hortaz, politikariek egin ohi dutena egin zuen: batetik bestera ibili, buruarekin denari baietz esanez, eta bitartean bost izarreko hoteletan lo egin, jatetxe dotoreenetan jan –eta edan–, eta bestetan.

Diote, 38.000 euro inguru gastatu zituela aurten, Andre Mari Zuriaren jaietan, puru eta zezenetarako sarrerak erosten, eta lagun dituen artean banatzen. Lagun asko ditu, izan ere, hemengo alkateak. Gainera, premia handian bizi direnak izan, nonbait, eta lagundu egin behar! Ze ingo zoau ba!

Diote, 30.000 euro gastatu dituela Parte Zaharreko zenbait kale estaltzeko proiektuan. Beharrezkoak zituen ikerketa sakonak, txosten burutsuak, propaganda zorrotzak, prentsa iragarki bistosoak –lurraldeko prentsa espainolean, non bestela!–, eta, diote, alferrikako gastua izan dela, lehenengo xentimotik azkeneko euroraino.



|||||||miel a. elustondo|||

|||Diote... diote... diote... eta ez dioten, eta badakiguna, gure poltsikoko zulotik atera duela dena!

Diote, 16.000 euro baino gehiago gastatuak dituela trenbidea lur azpian jartzeko... sinadura ekitaldian! Hainbat gonbidatu izan ziren bertan, aipu eta sona handikoak denak beraien etxeko sukaldean, eta guk denok ikaragarri gustura jango genituzkeen kanape goxoak jan zituzten, eta ardo ondurik onenak edan –janean eta edanean bizi gara beti–, inoizko delicatessen delikatuenekin batera.

Besteren poltsikutik

Diote milioika euro gastatu dituela udaletxearenak ez diren hainbat enpresari lanak, azterketak, proiektuak egin ditzaten, nahiz eta lan, azterketa eta proiektu horiek beroriek egiteko langile gaitu, prestatu eta ondo prestua izan aukeran udaleko beharginen artean bertan.

Diote Patxi Lazcoz duela izena Gasteizko alkateak. Martin Beramendi Oiartzungoa izan zela. Beste kasu bat dela hori.

Diote... diote... diote... eta ez diotena, eta badakiguna, gure poltsikoko zulotik atera duela dena!

Baina ez diote ezer kontuak nola diren Azpeitian...✘



iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

‘zure irribarra zaintzen dugu’

www.grupohorzkari.com



eurotex
P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 8125 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es



ACER ASPIRE 5736

- Intel Pentium T4500, 2.30GHZ
- RAM Memoria 4GB DDR3
- Disko gogorra: 320 GB
- DVDRW txartel irakurlea
- Windows 7 Home Premium. 64-BIT
- Pantaila: TFT 15.6" + webcam

499 euro
b.e.z. barne



innovadental



innovadental

Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Edo deitu:
943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hartz-klínika
AZPEITIAN